

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## 2,1 milioi euro bideratu dira Luzaiden tokiko azpiegiturak hobetzeko

*Salanueva kontseilaria burutu diren lanak eta egiten ari direnak ikustera joan da gaur; obren zenbatekoa 2,8 milioi euro da*

Miércoles, 23 de marzo de 2011

Nafarroako Gobernuak, Toki Administrazio Departamentuaren bidez, 2,1 milioi euro bideratu ditu Luzaiden hobekuntza lanak egiteko. Amelia Salanueva Murguialday, Toki Administrazio kontseilaria, burutu diren lanak eta egiten ari direnak ikustera joan da gaur; obren zenbatekoa 2,8 milioi euro da. Bisitan, Salanuevarekin batera izan dira Toki Administrazio Departamentuko zuzendari nagusia, Pedro Pegenaute Garde, eta Luzaideko Udaleko ordezkariak.



Salanueva eta Pegenaute Luzaideko Udaleko ordezkariekin

Egiten ari diren obra horietako bat Luzaideko zeharbidea da. 2,5 milioi euro behar izango dira eta Foru Gobernuak bi milioi euro inguru eman ditu: 1,1 milioi euro Herri Lanak Departamentuak eta 870.811 euro Toki Administrazioak eman ditu.

Iruñatik Frantziara doan NA-135 errepideko zeharbide hori konpontzeko gutxi gorabehera 900 metroan zehar lanak egin beharko dira. Euri uren sareak eta saneamendu eta hornidurenak berrituko dira. Argiteria publikoaren sarea, telefonia sarea, telebanaketa sarea eta gasa banatzeko sarea ere kanalizatu egingo dira. Horrez gain, 5,5 metro zabal izango den asfaltozko zoladura berrituko dute, baita espaloiak ere, gorago jarriko dira eta gutxienez metro bateko zabalera izango dute. Galtzaden eta espaloien arteko muga harrizko zintarren eta 25 cm zabaleko areken bidez egingo da. Proiektuak eusteko eta babesteko hormak berritu behar direla ere jasotzen du, baita seinaleak ipini eta oinezkoentzako pasabide gorago jarri ere.

Udalak Kurtzezahar eta Bexin bideak zolatzeko obrak eta Pekotxetatik Bentasera doan auzo bidean izan den luiziak eragindako kalteak konpontzeko obrak ere amaitu ditu. Gainera, aurten, udalak Gainekoleta auzoko argiteria publikoa berrituko duela aurreikusitako da. Obrak horiek 2009-

2012ko Tokiko Inbertsioen Planean jaso ziren, Toki Administrazioak finantzatu duen zeharbidearen zatia bezala.